

DONOSTIAKO KANTUJIRA. 20 URTE

Mari Luz Esteban

(2023ko otsailaren 18an, eguerdiko 12:30etan, Donostiako Plaza Berrian -Konstituzio plazan- irakurtzeko testua)

Eguerdia on. Hemen gauden guztiok badakigu Kantujira zer den. Euskal Herritik kanpo Kantujira zer den galdetzen didatenean, horrela laburtzen dut: hilean behin kalean biltzen garela euskaraz kantatzeko; kantu tradizionalak edo modernoagoak kantatzen ditugula pertsona batek gidatuta; ohitura hori Iparraldetik datorrela eta, gaur egun, Euskal Herriko hiri eta herri askotara hedatua dagoela.

Esaten dut ere Kantujira sozializatzeko eta elkar topatzeko aukera paregabea dela, ondo pasatzeko, gero elkarrekin pote bat hartzeko edo bazkaltzeko, edo ligatzeko ere, zergatik ez. Eta horren bidez, herri-kantutegia, herri-ondarea mantentzen eta zaintzen dugula eta identitate kolektibo bat ere jorratzen dugula.

Behin kantujiralari bati entzun nion kantatzen dugunean gorputz osoa zabaltzen dugula, eta horrek plazer handia ematen duela. Eta halaxe da. Taldean kantatzea eta elkarri entzutea dibertigarria eta plazerteroa da.

Baina hemen gauden guztiok ondo dakigunez, Kantujira bada ere erresistentzia forma bat, zerbait aldarrikatzeko modu bat. Kantujira orain hogeitun urte jaio zen, 2003ko otsailean. Otsailaren 20an, Audientzia Nazionalako Juan del Olmo epaileak, Guardia Zibilak egindako txosten batean oinarrituta, *Euskaldunon Egunkaria* ixtea agindu zuen eta hamar lagun atxilotu, inkomunikatu eta torturatuak izan ziren. Zazpi urte geroago, 2010ean, Audientzia Nazionalak esan zuen erabaki okerra izan zela, baina kaltea eginda zegoen.

Euskaldunon Egunkaria ixteak haserre handia piztu zuen euskaldunon artean eta hurrengo egunetan protesta asko egin ziren. Donostiar talde batek deialdi original bat egin zuen: kalean elkarrekin kantatzea eta horrela protesta egitea, protesta ludikoa. Deialdi hark arrakasta handia izan zuen eta jarraitzea erabaki zuten. Eta hogeitun urtez, hilero hilero, hilaren hirugarren larunbateko eguerdian, Kantujira presente egon da Donostiako Parte Zaharreko kaleetan. Soilik pandemian eten egin zen. Egun batzuetan (sozialki markatuta dauden egunak: Korrika, Euskararen eguna edo urteurrenen bat) kantu jakin batzuk kantatzen ditugu.

Beraz, esan daiteke Kantujirak herri-mugimendutik ere baduela. instituzio baten menpe ez dagoen herri-mugimendu bat, mugimendu autogestionatua.

Edonor izan daiteke Kantujirako partaide; baldintza bat besterik ez: euskaraz kantatzea gustukoa izatea. Baina, orokorrean, adin batera heldu garen emakumeok eta gizonok egoten gara, bizi-maila ez oso txarra daukagunok; asko jubilatuta zaudete, esparru oso desberdinetan lan egin duzue: administrazioa, banka, hezkuntza, merkataritza, industria, kultura... Guztiok dugu kantatzeko zaletasuna eta batzuek ezagutza handia duzue bai euskal kulturaz baita musikagintzaz eta kantuez ere.

Gu guztiok ja adin bat edukitzeak izaera berezia ematen dio Kantujirari, adineko pertsonak, orokorrean, ez baitaude oso ikusgai gizartean, are gutxiago taldean.

Pentsiodunek hori aldatu dute, baina Kantujira ere bada adineko pertsonak, pertsona zaharrak, kalean presente egoteko aitzakia eta aukera ezin hobea.

Ana Malagón idazleak idatzi zuen Donostiako Alde Zaharra demografikoki zimurturik dagoen auzoa dela. Oso modu ederra adierazteko auzo honetan zein den batez besteko adina. Bada, esan dezakegu Kantujira ere zimurturik dagoela. Zimurrak ditugu gure arpegietan, ez gure kantatzeko edo gizartean parte hartzeko gogoan.

Beste aldetik, adinak Kantujira gaixotasunarekin, heriotzarekin lotzen du eta noizean behin gogoan izaten dugu gaixorik dagoen gure lagun bat edo duela gutxi hil dena eta kantu bat kantatzen dugu bere omenez, eta une oso goxoak eta hunkigarriak izaten dira.

Gazte gutxi batzuek Kantujiran kantatzen duzue eta Aste Nagusian gazte talde batek bat egiten du gurekin. Gazterik ez egotea faktore askorekin dago lotua: beste musika mota bat gustatzen zaie edota larunbat eguerdia ez da oso ordu aproposa beraientzat.

Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den, ez dakigu hurrengo belaunaldiek beste formula batzuk asmatuko dituzten kalean elkarrekin kantatzeko. Ziur ez dela hain erraz amaituko euskaldunok kalean kantatzeko dugun ohitura.

Bukatzeko, esan nahi dut Donostiako Kantujira, ondo pasatzeko aukera izateaz gain, identitate kolektiboa eta protesta ludikoak egiteko modu bat izateaz gain, kultur ondarea zaintzeaz gain, badela ere etorkizunera irekita dagoen jarduera bat. Hemen gaudenok elkarrekin kantatzen dugunean etorkizun kolektibo bat imajinatzen dugu, elikatzen dugu, etorkizun kolektibo bat non euskal gizartea elkarrekin eraikitzea, elkarrekin gauza oso desberdinak egitea, gure kasuan kantatzea, ezin funtsezkoagoa den eta izango den.

Topa dezagun euskararen alde, topa dezagun Kantujiraren alde.